



# Aretxagazeta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1999ko uztailak 8 • 171. zka.



**Udako ikastaroak, berotik ihesi  
ikasgeletako itzalera**

**OPEL** 

*... eta konpromisorik ezaqutzen ez  
duen segurtasuna*



**Garaje Talleres Norte, s.l.** Zerbitzu ofiziala

Basabe poligonoa A-13 • 20550 ARETXABALETA • Tfnoa: 943 79 62 65/Fax: 943 77 16 20

# ARRITZEKO, S.L.

**ARGI-EDER** edifizioa



**27 etxebizitza, lokalak eta garajeak**  
**Santa Kurtz kalean • ARETXABALETA**

Fueros, 26 - 5º Of. 1 • Tfnoa-Fax: **945 230408** • VITORIA-GASTEIZ



# Zer iruditzen zaizkizu udako ikastaroak?

## Maria Miranda Alvarez

(Etxekoandrea)

Oso ondo iruditzen zaizkit. Ni ez naiz inoiz horrelako ikastaro batean egon, aldiz, nire seme-alabak noizbait bai. Hizkuntzak ikasteko ikastaroak egin izan dituzte hemen inguruan, atzerriera ez dira inoiz joan.



## Fatima Ruiz

(Langilea)

Ni inoiz egon ez naizen arren, oso aukera polita iruditzen zaizkit udako ikastaroak jakinmina duen jendearentzat. Nik ere gustora hartuko nuke parte horrelako ikastaro batean, baina ez dut aukerarik izan.



## Xabier Lasagabaster

(Langilea)


Oso ondo iruditzen zaizkit honelako ikastaroak. Azken batean denbora libre duen jendeak ikasteko beste modu bat da. Nik, hala ere, ez dut inoiz horrelako batean partehartu. Niretzat uda atseden hartzeko garaia da.



## Jose Luis Mulas

(Langilea)

Oso egokiak iruditzen zaizkit batez ere denbora libre duen jendearentzat. Nik adibidez, ez dut honelako ikastaroetan inoiz partehartu, ez baitut astirik lan egiten dudalako. Hala ere, eduki-ko banu egingo nuke ikastaroren bat.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

## Kaixo Atxabaltako herritar guztioi:

Portasol Auzoko Gazte Lagun Elkartea gara. Azken urteotan San Lorentzoren ohorez egiten diren jaiak, aurten uztailearen 16, 17 eta 18an izango direla esan nahi dizuegu.

Ilusio eta esfortzu handiz aritu gara hilabete hauetan, Aretxabaletako jai hauek antolatu eta ondo irteteko asmoz. Lan gogorra egin dugu herri honetako biztanle guztiak pozik ikusi ahal izateko Portasolgo jai hauetan.

Portasolgo jaiak 25 urtez alaitu dituzte herriko kaleak. Nahiz eta traba ugari izan aurrera jarraitu dugu oztopoak gaindituz. Auzokide batzuri ez daukagu ezer eskertu beharrik, ez baitigute beraien laguntza eskaini. Beste alde batetik, beheko denda batzuei gure esker ona eman behar diegu ahal izan duten heinean lagundu digutelako.

Jaien antolaketatik kanpo zaudetenok

agian ez duzue gure izerdi eta lana ikusi, baina etxerik etxe, enpresaz enpresa, dendarik denda eta tabernaz taberna ibiltzea oso gogorra da eta aurpegi txarrak, eta baita onak ere, jasan behar izan ditugu.

Besterik gabe, eskerrak eman nahi dizkizuegu jaiak aurrera ateratzen lagundu diguzuen denda, enpresa, auzokide, taberna, udaletxe, kultur elkarte eta Aretxagazetari.

Mila esker guztiagatik:

**P.A.G.L.E. (Portasol Auzoko Gazte Lagun Elkartea)**

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Arantza Antxia, Bego Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Monika Belastegi eta Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Bereizibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banantzailea:** Jeanette Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



**Aretxagazeta**

# Diputazioak ezetza Gellao Atxabaltakoa egiteari


Gipuzkoako Foru Aldundiak ezetza eman dio Gellao auzoa Eskoriatzatik banandu eta Aretxabaletako udal barrutira eransteari.

Gellao auzoko biztanleek 1997ko abenduan hasi zituzten Aretxabaletako Udalarekin beharrezko tramitazioak egiten Foru Aldundira eskaera luzatzeko asmoz. Aretxabaletako parte izateko Gellaotarren nahia osoko bilkuran bozkatu ostean eta zazpi zinegotziren aldeko botoarekin, espedientea Donostiara bidali zen.

## Banantzearen zergatiak

Gellaotarrek bereizketa hau eskatzeko orduan, hainbat arrazoi eman dituzte: batetik, Eskoriatzarekin komunikazio zuzenik ez dutela azaltzen dute; bestetik azpiegitura eta zerbitzurik konpartitzen ez dutela Eskoriatzarekin, eta horrez gain udalak ez duela Gellaoko ur hornikuntzan kasu, auzotarren alde ezer egin. Enplegu, komertzio edota banketxei dagokionez ere ez dute harreman ekonomikorik. Azken batean, Gellao auzoa eta Eskoriatzako herriaren artean harreman bakar bat baino besterik ez dagoela argumentatzen dute gellaotarrek, administrazioa hain zuzen ere.

*Gellaotarrek Foru Aldundiaren erabakia errekurritzeko aukera daukate*



## Ezezkoaren zergatia

Foru Aldundiak behin gellaotarren zein Eskoriatzako Udalak emandako arrazoietan oinarrituz, honako zergatiak eman ditu eskaera ezezteko: batetik, Gellaotik Eskoriatzara joateko bide nagusia Aretxabaletatik doana bada ere, distantzia 3,5 kilometrotan mozten da, eta honek ez du aldaketa handiegirik suposatzen gaur eguneko komunikabide aukerak kontuan hartuz Aldundiarentzat. Horrez gain, Eskoriatzak dituen elizateetatik lau daude Aretxabaleta edo Gatzagako udalerrietatik gertu. Bestetik, Eskoriatzako Udalak azpiegiturretan, ur

hornidura eta saneamenduan egiteko dituen inbertsioak burutzeko borondatea agertu duela uste du Aldundiak eta Gellaok ez duela tratu baztertzailerik izan ez eta ezberdinik Eskoriatzako beste elizateekin erkatuta. Horrez gain, zerbitzuen kasuan, udalari zuzenean ez dagozkiola eta Gellaotik hauetara joan behar izateak elizatea udalerrri batekoa edo bestekoa izatearekin zerkusirik ez duela gehitu du.

Honekin, ezeztu egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak gellaotarren eskaera eta nahiez geru errekurtsioa aurkeztu dezakete.



## Jon Molinak lehenengo meza

Jon Molina Atxabaltako gazteak bere lehenengo meza eman zuen pasa den igandean herriko parrokian. Meza eguerdiko hamabiak eta erdietan izan zen eta jende ugari bildu zen bertan.

Jon Molina pasa den ekainaren 29an ordenatu zuten apaiz, eta igandekoa berak emandako lehenengo meza izan zen.



Zenbaki

Basabe  
Industrialdea C Pab.

Aretxabaleta

Tfnoak: 943 71 21 12

943 71 22 68

**Aholkularitza**



*Parrila espezialitatea*

**GOYARAR ERRETEGIA**

SoloHaundi-8 ARETXABALETA ☎ 943 79 68 57

# Anjel Bergaretxe datozen lau urteotako alkate

## Ezustekorik gabe, pasa den larunbatean eratu zen udalbatza berria

Udalbatza berria eratu da dagoeneko pasa den larunbatean egindako alkate hautaketaren ostean. Honekin, Euskal Herriarrok alderdiko Anjel Bergaretxe izango da alkate datozen lau urteotan.

Ekainaren 13ko udal hauteskudeetan izandako emaitzen arabera, EHk 6 zinegotzi ditu, EAJ-EA koalizioak 5, PSOE-EEK 1 eta PPk estreinakoz Aretxabaletako Udalean 1.

Honekin guztiarekin, eta larunbateko bozketan honakoak izan ziren emaitzak:

- EH 6 boto
- EAJ-EA 4 boto
- PP boto 1
- PSOE-EE 0 boto
- ZURI 2 boto

Zinegotzi guztiak izan ziren hautaketan, baita PPko Maria Rosario Arrue ere hiru laguntzailerekin batera, Getxon PPko zinegotzi den bere



ahizpa eta bizkarzain bat horien artean. Kontuak kontu, jende ugari bildu zen pleno aretoan, EHko jarraitzaileak batez ere eta normaltasun osoz eta inongo ezustekorik gabe joan zen hautaketa.

*13 zinegotziak aurkeztu ziren larunbatean udalbatza berriaren eraketa ekitaldira. Maria Rosario Arrue PPko zinegotzia ere bertan izan zen*



**Haurreko udalbatzako hamar zinegotzik esan diote agur beren karguari eta hauen ordeztu beste hamar berrik hartu dute kargua. Ondoko kuadroetan, zinegotzi izateari utzi dioten orain arteko zinegotziak eta bakoitzak udal etxean emandako denbora daude. Baita zinegotzi berrien izenak ere.**

### Zinegotzi karguari utzi

Jesus Mari Kortabarria (EH); 10 urte  
Mikel Otero (EH); 4 urte

Juan Antonio Rodriguez (EAJ); 4 urte  
Koldo Azkoitia (EAJ); 8 urte  
Imanol Aizpurua (EAJ); 4 urte  
Jesus Akizu (EAJ); 4 urte

Adolfo Etxebarria (EA); 4 urte  
Clemente Domingo (EA); 8 urte  
Elena Vazquez (EA); 4 urte

Lorenzo Fernandez (PSE-EE); 4 urte

### Zinegotzi berriei ongi etorri

Sokorro Unanue (EH)  
Javier Etxebarrieta (EH)  
Andoni Miguel (EH)  
Josu Atxaga (EH)

Karmelo Azkoitia (EAJ)  
Jose Antonio Zubizarreta (EAJ)  
Ignazio Uribebarria (EAJ)  
Jose Mari Armentia (EA)  
Pablo Txintxurreta (EA)

Maria Rosario Arrue (PP)



# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Partehartze polita izan du Gaztetxeko jaiak

Giro polita sortu zuen herrian pasaden larunbatean Gaztetxeak antolatutako jaiak. Goizean goiz hasi eta ordu txikiak arte izan genuen Gaztetxeko kideek antolatutako ekitaldiez gozatzeko aukera. Goizean dianaren ostean hainbat jolas, poteoa eta eguerdian bazkaria egin zuten Gaztetxeko kideek. Bazkaria, eguraldi zoragarria egin zuela aprobetxatuz, Gaztetxe kanpoan egin zuten eta laurogei lagun inguru bildu ziren bertan.

Bazkari osterako antolatutako postre lehiaketako irabazle, Andoni, Elena eta xanti K kuadrilako kideak izan ziren. Irabazleek txokolatzeko tarta gozoa prestatu zuten lehiaketarako eta berau izan zen aurkeztutakoen artean laudorio gehien jaso zituena.


Postre eta kafearen ostean, jolasei ekin zieten bazkarian bildutakoek. Jolasen artean, ping-ponga, tirolina eta futbolina egon ziren beste batzuren artean, eta arratsaldea alai amaitzeko, Abdom taldeak kontzertua eskaini zuen bertan hurbildutako guztien gozamenarako.

Horrez guztiaz gain, gauean, Atxalbaltako Akulu taldeak kontzertua eskaini zuen 22:30ean hain zuzen ere,



*Laurogei lagun inguru bildu ziren larunbatean Gaztetxeko kideek antolatutako jaira. Argazki hauetan ikusi daitekeen bezala, eguraldiak lagundu zuen eta bazkaria Gaztetxe kanpoan egin zuten bertaratuek. Hainbat jolas ere izan zituzten arratsalde partean musikaz gain*

eta herriko taldearen emanaldia bukatu eta gero, hainbat pintxadiskorekin dantza saioa egon zen. Gaztetxeko kideek jaiaz oso balorazio positiboa egin dute, eta hurbildutako jende guztiari asanbladetara joateko gonbitea egiten diote.



## Eskoriatzako Bainuetxea liburuan

“Eskoriatzako Bainuetxea, Del Balneario a Marianistas” liburua aurkeztu zen larunbatean Eskoriatzako Udaletxeko pleno aretoan. Liburuaren egilea Jose Maria Urkia eta Txartyn de Bazterbero taldea dira. Liburuak Eskoriatzako bainuetxearen historia kontatzen du eta burutu duten pertsonen artean hainbat atxabaltar dago: Aitor eta Kepa Antxia, Iñaki Urreta eta Jose Ramon Intxauspe. Horrez gain, Aretxabaletako Argazki Taldea liburuko argazkiez arduratu da.

*Okindegia - Gozotegia*

*Aretxabaleta*  
 Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
 Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81  
 Aretxabaleta  
 Bertako okina



## Udaleku irekiak abian dagoeneko

Astlehenean hasi ziren martxan udaleku irekiak. 197 umek eman dute izena eta goiz zein arratsaldez begiraleekin batera jolasean pasatuko dute eguna. Izan ere, hori da udaleku irekiak antolatzekeo helburua: 3 urtetik 14 urtera bitarteko haurrak udaran dibertitzea, euskararen erabilpenean ohitzea, eta beraien artean harremanetan jartzea beste batzuren artean.

Udaleku irekietako taldeen banaketa, adinaren arabera egin ohi da. Honela, aurten izena emandako haurren arabera honelako taldeak sortu dira: 3 urteko 26 haurrek eman dute izena eta bost begirale arituko dira hauekin. 4 urteko haurren kasuan, 32 apuntatu dira eta hauetaz ere bost begirale arduratuko dira. 5 urteko umeei dagokionez, 36k eman dute izena, eta hauek ere bost begirale izango dituzte izena emandako haur kopuruaren arabera.

Lehenengo mailako haurren kasuan, 38k eman dute izena eta zazpi

begirale izango dituzte, bigarren mailako haurrak 42 apuntatu dira eta hauek ere zazpi begirale izango dituzte. Hirugarren mailakoak 12 eta bi begirale izango dituzte, eta lau, bost eta seigarren mailakoak 11 haur orotara eta begirale bakarria izango dute.

### Itzultzaile beharrea

Horrez guztiaz gain, udalekuan partehartuko duen neskatxoetako bat erdalduna da. Neskatxo hau Atxalbaltan urte bete igarotzeko etorri berria da, eta udalekuen helburuetako bat haurrak euskararen erabilpenean ohitzea izanik, itzultzailea jarri diote neskato honi, goizez zein arratsaldez berarekin arituko dena, honela gaintzeko haurrek erdararako joera izan ez dezaten.

Honekin guztiarekin, harreta berezia behar duten hiru haurrek ere partehartuko dute. Haur hauek jolasean dagokien adineko taldeekin jardungo badute ere, bakoitzak begirale bana izango dute.

## Garaion bai, baina Landan ez da bainatzea komeni

Arabako Osasun Publikoko Zuzendaritzordeak egindako uraren bigarren azterketaren arabera, Landan ez da bainurik hartzea komeni. Landan ezin bainatua, ez da uraren kalitatea ona ez delako, biltegi inguruan behiak daudelako baizik, eta hauek kaltegarriak izan daitezkeelako osasunarentzat. Garaioaren kasuan aldiz, uraren kalitatea ona da eta baita eguzkia hartzeko zonaldearena ere, ondorioz, osasun baldintza guztiak betetzen ditu eta lasai egon daiteke bertan.

## Zisne beltza omen den hegazti bat Urkulun

Egun hauetan zisnea omen den hegazti beltz bat agertu da Urkuluko urtegian. Adituek ikusi dute baina oraindik ere ez dakite zisne bat den edota beste era bateko hegazti bat, eta aurkikuntzarekin harrিতa geratu dira; izan ere, ez omen dago zisne beltzik. Aditu hauek esandakoaren arabera, zisne baten ezaugarri guztiak ditu, hala ere, eta beste espezie batzuekin gertatu izan den bezala, litekeena da, hegazti hau hibrido bat izatea, zisnearen gorputza duena baina kolore beltza.

### OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
ARETXABALETA

### Martín

RELOJERIA - BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16  
Tfnoa: 943 79 01 72

### DOIKALSE Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 943 79 82 44

### ARBULO HARATEGIA

Santa Kurtz, 5  
Tfnoa: 943 79 02 24  
ARETXABALETA

# Hiruatxek Indiako Adivasiei luzatuko die laguntza

Finantzaketaz arduratuko da Hiruatx eta 18,5 milioi pezeta lortzea espero du

Hiruatxek, Gobernu Kanpoko Erakundeak, laster jarriko du abian hirugarren munduko herrialdeei laguntzeko boskarren proiektua. Azken proiektu honen izena "Unai-2 Erreboluzio zuria" da, eta Indiako Adivasiak izango ditu kontuan.

Ez da Hiruatxek Indiako Adivasiei laguntzen dien lehenengo aldia. Izan ere, Ignazio Galdosen bidez, Indian bizi den misiolari Jesuita atxabaltarra, burutu zuen Atxabaltako GKEak bere lehen proiektua, Unai-1 hain zuzen ere.

Unai-2, laster martxan jarriko den proiektua, Indiako jatorrizko biztanleak diren Adivasiei zuzenduta egongo da eta egitasmo berri honetan ere Ignazio Galdosek egingo ditu Aretxabaleta eta Indiaren arteko bitartekari lanak.

## Ignazio Galdos 18 urte Adivasiek

Ignazio Galdosek hamazortzi urte inguru daramatza Adivasi aborijenekin lanean, hauen garapena bultzatuz, baina batez ere, hauen burujabetasunaren alde lan egiten, Indian guztiz baztertuta eta kasta guztietatik kanpo dauden pertsonak baitira Adivasiak.

## Unai-2k bufala esnea oinarri

Unai-2 proiektuak 8.500.000 pezetako aurrekontua du, eta diru honekin, ume koxkorren eta euren amen elikadura txarrari irtenbide bat eman nahi zaio. Honela, behartsuak diren 120 familiei esnea emango dien bufala bana ematean datza proiektu berria, batez ere haurrak, haurdun dauden emakumeak eta titia ematen ari direnak elikatu ahal izateko. Horrez gain familia hauei

sobera gelditzen zaien esnea salduz gero, diru sarrera bat izango dute familia mantendu ahal izateko.

## Familien formakuntza


Unai-2 erreboluzio zuriaren finantzaketaz arduratuko da Hiruatx beste proiektu batzuetan egin duen bezala. Hala ere, hasia da dagoeneko Ignazio Galdos Unai-2 proiektuaren barruan laguntza hau jasoko duten familiak abeltzaingoak trebatzen eta antolatuta dute sobera gelditzen den esnearen bilketa esne biltegirara eramateko. Saldutako esnearekin jasotzen duten diru kopuruaren zati bat gorde egingo zaie onuradunei, guztien laguntzaz fondo berriak sortu ahal izateko, eta ondorioz beharrenda dauden beste familiei bufala berriak erosteko. Izaera rotatiboa izango du, beraz, Hiruatxen laguntzak.

**Unai-2 proiektuak 8.500.000 pezetako aurrekontua du, eta 120 familiei lagunduko die bufala bana erosiz**

Izan ere, hori da bai Jesuita atxabaltarraren bai Hiruatxen irizpide nagusia: laguntza eskaini bertakoak formatuz eta bertako liderrak sortuz, gai izan daitezkeen beraien kabuz jarduten gugandik ahalik eta gutxien kutsatuz.

Horrez guztiaz gain, zortzi milioi eta erdiko aurrekontuaren barruan, mendian ibiltzeko Jeep bat ere sartzten da, beharrezkoa baita 30 kilometroko erradio batean banaturik bizi diren familiei laguntzeko, beraiekin harremanetan egoteko eta diru kontuak administratzeko.

Hiruatxek esku artean duen proiektu berri honetan laguntzeko, diru sarrerak ohiko bi kontu hauetan egin daitezke: Euskadiko Kutxan 0020032010 eta Kutxan 012271470.2 zenbakietan.



**Ignazio Galdos**  
Jesuita atxabaltarra

## • Bigaren proiektua da Hiruatxekin elkarlanean egiten duzuna

Bai. Lehenengoak "Revolución verde" izena zeukan. Adivasiak oso pozik daude lehenengo proiektuarekin, hainbat gauzatan aurrera egin dute. Hala ere, oraindik laguntza behar dute eta horregatik ekin diogu "Unai-2, Revolución blanca"ri.

## • Zer da "La Revolución blanca"?

Esnean oinarritutako kooperatibak dira. Kooperatiba hauek herriarenak dira, Adivasienak, ez geure misioarenak. Guk egiten dugun gauza bakarra laguntza ematea da. Proiektu honen lehenengo helburua elikadura eta nutrizioa dira. Eta honekin batera beste helburu oso garrantzitsu bat ere badu: Adivasien hezkuntza hain zuzen, bufalak egunean bitan jetsi behar dituztelako eta diru kontuak ere eraman behar dituztelako. Orain arte, horrelako ardurak izateko motiborik ez zeukaten eta ez ziren ikasteaz arduratzen. Orain, aldiz, ikasi behar izan dute, esnearen kontuak adibidez beraiek eraman behar dituztelako, eta hau aurrerapen handia da. Azken batean, guk bufalak erosi eta ematearekin ez dugu gauza handirik egin. Azken helburua proiektu hau sostengarri izatea da, hau da, kooperatibak sortu ostean Adivasiak eurak izatea aurrera eramango dituztenak.



# Celia Mediavilla

## Kurtzebarriko zoko izkutuen ezagule

Atxabaltan beste urte daramatza Celia Mediavillak Kurtzebarri eskola garbitzen; 30 hain zuen. Burgosetik Atxabaltara lanera etorri, martxoan jubilatu eta laster Burgosera bueltatuko da. Itzulerako bidaia honetan, halaere, maitez gain, Atxabalta eta batez ere Kurtzebarri eskola bihotzean eraman-go dituela aitortu du.

**-Noiz hasi zinen Kurtzebarri eskolan lanean ?**

-Orain 30 urte. Eta hau nire azken ikasturtea izango dela jakiteak pena handia ematen dit. Oso gustora nago bertan. Irakaslegoa oso jatorra da, eta harreman polita dago gure artean. Beraien ama banintz bezala naukate.

**- Daramatzun urteetan aldaketarik nabaritu duzu eskolan?**

- Bai, handia gainera. Gauza askotan egon dira aldaketak. Ikasleak ere dexente jatorragoak dira lehen baino. Gaur egungo hurrek errespetu handiagoa diote ikasten duten egoitzari eta hobeto zaintzen dute. Ikasgelak ere lehen baino txukunago eta garbiago uzten dituzte.

Horrez gain, irakasleak ere arduratsugoak dira lehengoak baino. Hurrei irakasteko orduan ardura handia jartzen dute eta benetako interesa nabari zaie.

**- Jubilatu zarela eta zein da hemendik aurrerako zure asmoa ?**

-Burgoseko herritxo batekoa naiz eta senarra eta biok hara joango gara bizitzera. Izan ere, oso zorte txarra izan dut seme-alabekin. Lau izan eta hiru hil egin zaizkit. Bata oraindik txikia zela eta beste biak istripuan eta derrame baten ondorioz Beraz bakararra geratzen zait, eta hau Burgoseko nire jaioterrian. Hori dela eta, bertara joango gara.

Lehenago alde egitekoa ere izan naiz, halaere, iloba bat dut Gasteizen, hildako alabaren semea, eta hamaika



**“Burgosera itzultzean, bi gauza oso garrantzitsu utziko ditut hemen: nire iloba eta Kurtzebarri”**

urte bete bitartean hemen geratzea pentsatu nuen. Eta dagoeneko beteak dituen ez, bagoaz. Honekin guztiarekin bi gauza oso garrantzitsu uzten ditut hemen: bata iloba, eta Kurtzebarri eskola bestea.

**- Askok maite duzu eskola beraz.**

-Izugarri, nirea balitz zaindu izan dut. Makina bat garrasi egin izan diet bertako neska-mutikoei gauzak behar bezala zaintzeko. Batez ere

lehenago, eskolaz kanpo ingelesa ikastera etortzen ziren neska-mutikoei.

Gainera, eta lehen esan bezala, bizitzak nahikoa kolpe eman dizkit, eta eskolan lanean egoteak nire arazoetatik deskonentatuta egoteko aukera eman dit

**-Genio txarra omen duzu.**

- Apur bat bai. Uste dut umeek beldur pixka bat zidatela. Nire lana garbiketaz arduratzea izan da beti, halaere, beste betebeharrak ere hartu izan ditut nire kargu eta hori dela eta, neska-mutikoei garrasiren bat edo beste egin izan diet gauzak zain zitzaten, orden bat jartzeko azken batean. Horregatik, beldur apur bat izan didatela uste dut, jantokian hasi artean dena den; izan ere, jantokian egotean hurrekin izan-

dako harremana estuagoa izan da eta sargento bat ez naizela ikusi dute.

**- Umeek gauza asko ahazten al dituzte gela barruan?**

- Gaur egunean ez, gero eta arduratsugoak dira, lehenago gehiago mareatzen ninduten.

**- Horrenbeste urtean anekdotarik izango duzu.**

- Eskolan egon diren neska-mutikoei ez, baina arratsaldetan ingelesa etortzen zirenekin behin gertatutakoa oroitzen dut. Ez ziren oso txintxoak eta haserre egiten nien. Hori dela eta, egun batean inguratu egin ninduten eta harrotu egin zitzaizkidan. Honen aurrean, pakean uzteko edota erratza buruan apurtuko niela esan nien, eta pakean utzi ninduten. Ez naiz inoiz beldurtia izan. Eskolan gauzez ere bakar-bakarrik egon izan naiz lanean beldurrik gabe.

**- Zertan emango duzu denbora hemendik aurrera?**

- Ez dakit. Paseatu egingo dut, kartetan jokatu... etxean behintzat ez naiz egongo. Eta Atxabaltara ere etorriko naiz noizean behin.



**“Azken finean,  
Euskal Presoak  
Euskalherriratzea  
ilusioz beteriko  
bidaia baten  
lehen urratsa baino  
ez dugu.”**

## Hator, hator, neska/mutil...

Oporrak!; ditzosozkoak, horren denbora luzean esperotakoak eta urtean zehar maizago behar genituzkeenak, heltzear daude. Garai honetan, hainbat jenderentzat “santutegi” bihurtzen diren tokiak, Kanariar uharteak, Sevilla, Almeria... beste euskaldun askoren derri-gorrezko **espetxe** bilakatu dira azken urte luzeetan. Batzuentzat itsaso zabal eta eguzki izpiak direnak, metro batzuk harantzago, gelaska ilun eta funtzionarien jipoiak baino ez dira besteentzat, euskal preso politikoentzat, hain zuzen ere.

Bai, santutegi diot agerian baita-gaur egun gorputzari ematen zaien garrantzia, hobeki esan gorputzaren itxurari. Egunerokotasunez beterikoak ditugu, anorexia, bulimia, UVA izpiak, lifting... duela urte batzuk erabat ezezagunak ziren hitzak, eta beharbada, mass medien ezinbesteko “laguntzaz” (nola bestela), moda guztien gainetik, belaunaldi oso baten (sexu bereizketarik gabe) ezaugarri nagusi izatera hel daitezkeenak.

Dena den, baikor izateko motiborik badugu aspaldi honetan, izan ere, hango edo hemengo *trenak* direla medio, baitirudi Euskalherri osoan kontzientzia hartu dugula gure presoek eta beraiekin batera, neurri

ezberdinetan bada ere, euren senide eta lagunak bizi duten arazoaz. Gero eta ugariagoak eta adierazgarriagoak dira presoek Euskalherriratzearen aldeko mugimenduak, eta zorionez, Atxabalta ez da salbuespena.

Halere, behar bezalako ondorioak nahi izanez gero, hauek guztiak ezin dira aurrez aipatutako modako ahaleginetan geratu, guzti-guztion: zahar-gazte, neska-mutil... konpromezu iraunkorra eta sendoa eskatzen du. Ohar gaitezen, momentuz aldarrikatzen ari den gauza bakarra, estatu espainoleko legeen arabera, presoek dagozkien eskubideak errespetatzea baino ez dela.

Beraz, ondo merezitako oporraldi honetan, agian ez litzateke aukera txarra izango hiru eguzki-ordu preso bati egindako bisitatxoagatik truketzea, ziur eurek eskertuko luketela.

Edonola, baliagarriak izan daitezela aisialdi une horiek indarrak berritzeko, azken finean, Euskal Presoak Euskalherriratzea ilusioz beteriko bidaia baten lehen urratsa baino ez dugu.

Ea, bada, aurtengo gabonetan hator, hator... zentzu eta kontestu-desberdin batean abesteko aukerarik dugun.

Aitor Iruze

**M**

**MEMESA**

**Industri hornidurak**

Tfnoa: 943 71 24 11  
ARETXABAleta

**OSKAR**

HARATEGIA

Loramendi, 1  
☎ 943 79 71 69

**Iber**

★ Loteria ★

✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2  
Tfnoa: 943 79 04 39

**JOSU  
HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte, ☎ 943 77 03 08



## Udako ikastaroak, gerizpean ikasteko beste modu bat

Udako ikastaroetan partehartzeko matrikula epeak ireki direla entzutean, edota hurbileko batek atzerrira hizkuntzaren bat ikastera doala esatean, batek baino gehiagok harridura aurpegia jarri eta galdera hau datorkio burura: “Nola da posible uda heldu eta hondartzan fresko-fresko egon beharrean atsedean hartzen ikasgela bero bat nahiago izatea eta zer egiteko gainera eta ikasi?” Bada, halaere, ikastaro hauei freskotasuna aurkitzen dionik, izan ere, urtean zehar egindako ikasketa eta lanetatik aparteko irakasgaiak eskaintzen baitituzte.

Gure artean ditugun udako ikastaro hurbilenak, Udako Euskal Unibertsitateak, UEUK, eskaintzen dituenak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, EHUK, antolatzen dituenak dira. Horrez gain, eta hizkuntzei dagokionez, uda, euskara ikasi edota sakontzeko aprobetxatzen duenik ere badago, euskaltegi ezberdinek eskaintzen duten ikastaro trinko edota barnetegietan. Eta atzerriko hizkuntzen kasuan, aukerak ere anitzak dira, bai herritik mugitu gabeko eskola trinkoetan zein atzerrian, aukeratutako hizkuntzari dagokion herrialdean.

Udako oporretan ere ikasteko gosea duenak, badu non aukeratu, izan ere, aukera zabala da. Aukera hauek oso anitzak dira, unibertsitateko ikastaroak, euskarazko barne-tegiak zein atzerriko hizkuntzak; zaletasun edota jakinminaren araberan egin ohi da aukeraketa.

## UEU eta EHU

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) zein Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eskaintza ezberdina badute ere, biek, karrera ezberdinetan ikasturtean zehar landu ohi ez diren gaiak aztertzen dira; udako beroa borrokatzeko gai freskoak.

UEUren kasuan, uztailaren 5ean zabaldu zituen ateak eta 30era bitartean luzatuko da. Egoitzari dagokionez, Miarritzen izango du 9a bitartean eta 19tik 30era Iruñean. "Ikerketa berriak Euskal Herriaren Historian", "Musika estiloen eguneraketa", "Bertsolaritzaren egungo erronkak" eta



*Herrian bertan zein atzerrian, hizkuntzak ikasteko sasoi aproposa bihurtu dira udako oporrak*

zientzia arloko beste hainbat gai euskaraz hutsean jasotzeko aukera aproposa da UEUk eskaintzen duena.

Aretxabaletako Udaleko Euskara Zerbitzuak partida bat izaten du urtero ikastaro hauetan partehartu nahi duen edozein atxabaltarrentzat, nahiz eta azken urteotan ez duen inork dirulaguntza hau eskatu.

EHUko Udako Ikastaroak ekainean hasi ziren eta irailaren 11n amaituko dira, eta ikastaro hauek ere gaurkotasun handiko gaiak landuko dituzte, "Onkologiaren munduko aurrerapenak", "Hedabideen komunikatzeko era berriak" eta "Ekonomiaren globalizazioa" kasu.



### Amaia San Pedro.

Iaz Estatu Batuetan izan zen hilabetez ingelesa ikasten. Berarekin izan gara eta honakoa kontatu digu

### • Nora eta noiz joan zinen ingelesa ikastera?

Orain bi urte EEUUra joan nintzen, Floridako herri batera. Dena den, lehenago ere izana nintzen Ingalaterran ingelesa ikasten. EEUUra ekaina amaiera joan nintzen. Bertako familia batekin bizitzen hilabete eman nuen eta gero nire gurasoak etorri ziren eta beraiekin beste hamabost egun eman nituen oporretan.

### • Nola edo noren bidez joan zinen?

Gasteizko ITA agentziarekin joan nintzen. Hemendik taldetxo bat joan ginen, eta EEUUra helitzean banatu egin ginen. Batzuek ingeleseko klasea ere izan behar zituzten eta beste batzuek ez.

### • Zuk ingeles eskolarik izan zenuen?

Ez. Ni familia batekin bizitzera joan nintzen hilabetez hitzegiteko orduan soltura hartzeko. Oinarri teorikoa hemendik neraman. Izan ere, hemen oinarri gramatikala lortzea posible da, baina oso zaila, berriz, akademietan hitzegiteko erraztasuna lortzea. Irakasleak, bai, ingelesez egiten du, baina geure artean euskaraz. Horregatik joan nintzen, 24 orduak ingelesez bizitzeko. Horrez aparte, hemendik joandako guztiok asteen behin elkartu egiten ginen. Joan aurretik zehaztuta geneukan

egitarau bat eta horren arabeko elkartzea izaten zen aipatutakoa. Honela, Disneyworld ikustera joan ginen, kanoan ibiltzera...

Horrez gain, niri egokitutako familia oso jatorra zen. Mormoiak ziren eta erlijio honek oso irekiak egiten ditu, honela lehenengo egunetik eman zidaten konfidantza handia.

### • Hizkuntzan aurrerapen handiak egiten al dira?

Bai. Eskolak hartzen baino gehiago, nahiz eta hemendik oinarri bat ere eraman behar den.

### • Garestia da honelako egonaldia bat?

Bai. 300.000 mila pezeta inguru.

• **Zuk egin bezalako hizkuntza ikasteko egonaldia benetan ikasteko dira edo gehiago oporrak pasatzeko beste modu bat?** Gauza biak. Hizkuntza ikasi egiten duzu ondo pasatzen duzun bitartean.

## Udako oporraldia, hainbatek euskara ikasi edo sakontzeko darabil



*Kurtzearri eskolako ikasleentako batzuek uztailean zehar euskara ikastaro trinkoa egiten ari dira Leintz Udal Euskaltegiaren eskutik. Eskola hauetan, gela barruko saioez gain, kanpo ekintza ugari ere egingo dituzte ikasleek. Argazki honetan, kasu, pasa den asteartean Arrasateko Monterron Kultur Etxera egindako bisita ikusi daiteke*

Uda, euskara ikasi edota sakontzeko aprobetxatzen duenik ere badago, euskaltegi ezberdinek eskaintzen duten ikastaro trinko edota barnetegietan. Eta atzerriko hizkuntzen kasuan, aukerak ere anitzak dira, bai herritik mugitu gabeko eskola trinkoetan zein atzerrian, aukeratutako hizkuntzari dagokion herrialdean.

### Atxabaltan euskara ikasten

Geure herrian ere bada honelako ikastarorik. Udal Euskaltegian bi talde arituko dira uztailean zehar euskara sakontzeko asmoz. Talde hauek Kurtzibarri eskolako

hogeita hamar inguru neska-mutikoz daude osatuta, eta egunero goizeko 9:30etik 12:30 era bitartean euskaltegiak Eskoriatzan duen egoitzan euskara eskolak jasoko dituzte. Hala ere, eta ikasleentzako opor garaia dela kontuan hartuz, kanpo ekintza ugari ere egingo dute goiko argazkian ikusi daitekeen bezala. Bertan, euskaltegiko ikasleak Arrasateko Monterron Kultur Etxeko liburutegira bisita egin zuten eta bertan Interneteko eskolak jaso, euskaraz, noski, hori baita ikastaro hauen helburua: gazte hauek euskarara zaletu eta kaleko harremanak

euskaraz ere egin daitezkeela erakustea.

Bestalde, denborarik gabe eta zeregin guztietara heldu ezinik dabilenak badu udan euskara ikasteko beste aukera bat, herrian izan beharrean turismo apur bat egiteko aukera ere ematen diona: hainbat euskaltegik antolatutako barnetegiak Euskal Herri osoan zehar. Uztaila, abuztua zein irailean izaten dira, hamabost egun, hiru aste, hilabetea edota bi hilabetekoak. Eguneko hogeita lau orduak euskararen murgildu eta hizkuntzari bultzada emateko aukera ezin hobea.

Bi unibertsitate hauen eskaintzak baino hizkuntzak ikastea nahiago duenik ere badago, eta hizkuntzak ikasteko dauden aukerak ere oparo eta zabalak dira, uda izaten baita urtean zehar asti gutxirekin ibiltzen direnentzat hizkuntzak ikasteko sasoi.

Batetik geure herrian edota hurbileko batean dauden akademietara jo dezakegu. Akademia hauek luzatzen duten eskaintza oso anitza da, nahiz eta uda partean ohikoena ikastaro trinkoak izaten diren. Egunean bi edota bi ordu eta erdiko eskolak izaten dira, berrogeiren bat ordu orotara, eta media gisa 25.000

mila pezeta inguru ordaindu behar da honelako ikastaro bakoitzeko.

### Hizkuntza dagokion herrialdean

Norbere herriko akademian inglesa, frantsesa, alemana edo beste edozein atzerriko hizkuntza ikasteko beste aukera bat hitz egiten deneko herrialdean egonaldi-txoa egitea da.

Egonalditxo hauek hamabostetik bi hilabetera artekoak izaten dira normalean, eta hainbat agentzia dago honelako gaiez arduratzen dena.

Atzerriko egonaldi hauek era askotakoak izan daitezke, baina

normalena, familiatan zein internontzako ikastetxeetan egotea da, eta bai batean, bai bestean eskolak hartzea norbere aukera da.

Atzerrian hamabost eguneko egonaldia bataz beste 150.000 peze-ta ordaindu behar da. Aukera merketxoagoak ere izaten dira baina oso gutxi. Eta hilabete osoko egonaldiak bikoitza, 300.000 pezeta inguru. Prezio honen barruan, egoitza, janaria eta dagokion hizkuntzako eguneko lau eskola ordu sartzen dira.

Dena den, honelako egonaldiak prestatzeko agentzia mota asko dago eta aukerak ere oso zabalak dira.

# Uztailean futbitoa nagusi



22 talde jokatzeko ari dira Arlutz futbito txapelketan

Uztaileko arratsalde eta zapatuetan futbitoa nagusitzen da Arlutz osteko plazan. Aurten 22 talde arituko dira txapelketan eta talde txapelidunak afari bat

irabaziko du. Taldeak bi zatitan banatu dira: A taldea eta B taldea. Lehenengoan honako talde hauek aurkeztu dira: Serralsamus Natteteri, Kemen, Felaciones pú-

blicas, Peña Zurito, EPEH, Killers, Komando alpargat, Doraeman k.k., Bartolin, Txurumbeles, Rude Boys. B taldean, berriz, Goma 2, Krucifijo en el pijo, Motxuelo futbolista, La once, Aldatz, Toblerone, Garaje Tanis Mulas, DDK, Larrian, DKB mecanico eta TPM. Izenetan behintzat originalak eta xelebreak badira batzuk. Hauetatik 10 bat talde dira Aretxabaletakoak. Talde bakoitzeko ekipo guztiek euren artean jokatu dute batak bestearen aurka. Arratsaldeko 5:30ean hasiko dira partiduak eta 9:15ak arte bost partidu izango dira arratsaldero.

## Gazteen txapelketa

Iaz lehen aldiz antolatu zuten gazteentzako futbito txapelketa eta aurten ere ostera jokatzeko ari da. Bertan izena eman duten taldeak Amnistia, Artaburu, UDA, Pity Cia, Txistalfo eta Champion ligue dira.

# Kiroletzeko rokodromo berria martxan da

Murrukixok eta Zaraia M. taldeek egindako eskariari jarraituz rokodromo berria jarriko da kiroletxean. Rokodromoa non kokatu erabakitzeak hainbat aukera aztertu ziren eta azkenik, graden gainean jartzea erabaki zen, hauek ez baitira asko erabiltzen. Dagoeneko plataforma ipinita dago eta horren gainean kokatuko da 9 metro zabalera eta 3,12 metroko. altuera duen horma zatia. Lanok arlo honetan espezializatua den Gastetizko "Rokodromos" enpresak egingo ditu. Uztailean bukatzea espero da, irailerako zabalik

egoteko.

## Dutxak emakumeen aldageletan

Pistinako emakumeen aldageletan hiru dutxa jarri dira. Orain artean emakumeek beste aldeko aldageletara joan behar izaten zuten dutxatu nahi izanez gero, baina hemendik aurrera pistinako aldageletan bertan dutxatu ahal izango da.

Bestalde, gogoratu urtero moduan kiroletxeko bazkide direnek udan Arrasateko pistinetara joateko aukera izango dutela, Aretxabale-

takoa itxita egoten baita.

Kiroletzeko gimnasioak ere izan du aldaketarik, izan ere, ekipamendu berria jarri da: bizikleta bat, lau-bost pesa eta arraun makina bat. Horrela gimnasioa osotua gelditu da eta ez dago beste makinarik sartzeko lekurik. Asier Mugikak kiroletxeko teknikariak jakinarazi digunez, gimnasioa erabiltzen dutenen kopurua handia da, falta den bakarra bertan monitore bat jartzea da, bertako ekipamenduaren erabilera aholkatzeko. Gai hau erabakitze dago oraindik.

**Dorleta**  
**taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8 •  
☎ 943 79 94 15

**Jauregi**  
**Okindegia**

Otalora, 10  
Tfnoa: 943 79 57 47  
Aretxabaleta

**IZOTZ**  
**Taberna**

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65  
Aretxabaleta

ESKORIATZA  
Bazkari eta afariak

Tfno 714345

ERRETEGIA

MENDIOLA

Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA

# Jon Lete eta Mikel Arana

## Dorletako Ama txirrindulari eskolako partaideak

Dorletako Ama txirrindulari eskolako infantil mailan aritu dira aurten Jon Lete eta Mikel Arana. Dagoeneko denboraldia bukatu dute eta udako oportunitate deskantsatzeko asmoa dute, entrenatzaileak ere horrela agindu die-eta.

Jonek infantiletan jarraituko du datorren denboraldian, Mikel, berriz, urtebete nagusiagoa denez, kadete mailan arituko da.



• Nola joan da aurtengo denboraldia?

**Jon:** Ondo. Hamabi bat karrera korritu ditugu eta horietan bi aldiz hirugarren postua lortu dut.

**Mikel:** Ilusioz aritu naiz. Karrerak Deba mailan korritu ditugu eta horrez gain, Gipuzkoako txapelketa eta erlojuz kontrako proban ere hartu dugu parte. Momentuz, karrerak amaitzea lortu dut, eta hori garrantzitsua dela uste dut.

• Zer nolako karrerak izan dira?

**M:** Gure karrerak zirkuito itxietan izan dira. Nik gurago ditut ibilbide irekiak, leku berdinean bueltaka ibili baino, bestela, monotonoegia da.

• Datorren denboraldiari begira, zein izango da aldaketarik nabarmenena?

**J:** Aurten lehen mailako afizionetuetan aritu naiz eta datorren urtean bigarren mailan egongo naizenez, abantaila izango dut. Eraitza hobekia lortzeko aukera izatea espero dut.

**M:** Ni kadeteetan arituko naiz. Aldaketa handia izango da,

“Gazteriar  
orokorrean futbola  
gehiago gustatzen  
zaio, guri osteraz ez”

zirkuito itxiak alde batera utzi eta irekietan arituko bainaiz.

• Zein txirrindulari miresten duzue?

Pantani, oso ikusgarria da.

• Txirrindularitzak zergatik ez ditu erakartzen gazteak?

**M:** Gazte gehienei futbola gustatzen zaie. Guri, osteraz, futbola ez zaigu horrenbeste gustatzen. Nire kasuan eskiatzea eta txirrindularitza gustatzen zaizkit.

**J:** Dena dela, denboraldiaren hasieran bestelako kirolak ere egiten ditugu. Irailean mendia, pistina, patinak, pelota... probatuko ditugu. Bizikleta urtarrean hartuko dugu, martxoan denboraldiarekin hasteko. Daukagun adina kontuan hartuta, garrantzitsua da gainontzeko kirolak ere probatzea.

## Pilota partidua Bergararren aurka

Herri arteko pilota torneoan Hernaniren aurka final aurrekoa galdu ondoren, 3. eta 4. postua erabakitzeko Bergararren aurka jokatu beharko dute atxabaltarrek. Partidua datorren zapatuan izango da Oñatiko kiroldegian arratsaldeko 6etan. Norgehiagoka interesgarria izango da, Bergarak pilotari onak baitauzka baina etxeok ere gogor dabilta.

Bestalde, zapatuan beste pilota txapelketa bat ere jokatzen hasi zen herrian, San Ignazio txapelketa hain zuzen ere. Berau, Antzuola, Bergara, Arrasate, Oñati eta Aretxabaleta artean jokatutako da.

## Igor Arenaza Logroñesera

Igor Arenazak Eibar utzi eta bigarren mailan dagoen Logroñes taldean jarraituko du datorren denboraldian. Kontratu bi denboraldirako sinatu du eta berak jakinarazi digunez, honek alde ekonomikoa suposatzeaz gain, lehen mailan ibilitako taldea denez, prestigioa eta izena ere hobea du. Bigarren mailan dagoen Logroñes taldearekin liga hasi aurretik hasi ziren harremanak baina joan den astean hartu da erabakia.

## Iñurategi anaiek Torre sin Nombreko gailurra lortu

Felix eta Alberto Iñurategik, Bergarako Lazkano eta Tamayo bizkaitarrek batera joan den ekainaren 28an Pakistanen kokatzen den “Torre sin Nombre” (6.251 m) igotzea lortu zuten. “Al filo de lo imposible” programako lantaldeak bide klasikotik egin zuen gailurrerako bidea.

Gogoratu espedizioa apirila aldera irten zela hemendik Iranera bidean. Bertan 4.000 metro inguruko mendi batzuk igo zituzten. Bertatik, Karakorum-era abiatu ziren, “Torre sin Nombre” igotzeko. Orain Nanga Parbat mendia dute aurrez-aurre, 8.125 metrokoa.


# Intsektuak, udako lagun astunak

Eguraldiak hobera egin eta eguzkia berotzen hasten den garai honetan, mota askotako intsektuen presentzia areagotu egiten da gure etxeetan. Neguan zehar ia ikusi ere egiten ez ditugun arren, udara partean eltxo, labezomorro, inurri, erle eta euliak gonbidatu izaten ditugu geure etxeetan.

Hauen aurka ekiteko badira merkatuan produktu asko, kimikoak gehienak, hala ere, eta ingurugiroarentzat kaltegarri. Haatik, erremedio natural oso efektiboak daude eta iraupen luzeak gainera.

## Intsektu andanak etxean

Eltxoek egindako ziztadak ez dira batere gozoak izaten, eta gauez ohean gaudela intsektu honen hegalditoxoa belarri ondolik igarotzen entzutean urduri xamar ere jartzen gara. Zer egin hau ekiditeko? Leihoan lorontzi batean albahaka landatzea erremedio izugarri ona da, eta ez dira eltxoak inguratu ere egingo, landare honen usaina gorroto baitute.



*Intsektuak neguan ia ikusi egiten ez baditugu ere, udaran, ugaritu egiten dira, eta buruhauste bat edo beste ematen digute*

Inurri eta labezomorroei dagokionez, oso gogorak dira, eta intsektizidek batzuetan ezin izaten dute hauen aurka egin. Inurriak desagertarazteko, etxean agertzen diren zuloxoetan espliegoa jartzea besterik ez dago, eta labezomorroen kasuan laurela.

## Erlearen ziztada

Erlearen ziztada ez da batere

gozoa izaten; min zorrotza ematen du eta luzez irauten duena gainera. Erleek ziztatuz gero, pozoia ateratzea da egin beharreko lehenengo gauza. Berehala egin beharreko gauza da hau, eta ateratzeko, eztena dagoen ingurua sakatu behar da, azala tiratuz.

Behin pozoia aterata, zauria ur hotzez garbitu behar da. Ondoren, ogi, esne eta esnez egindako ore batez estali ziztada. Enplastu sinple honekin haunditzea ekiditu eta mina lasaitzen da.

## Intsektuak belarrian

Ohikoa ez bada ere, gertatu izan da intsekturen bat belarrian sartzea. Honen aurrean, betiere intsektua bizirik badago, belarri zuloan argitxoa jartzea komeni da, honela, belarriko bisitariak argia ikusi eta irteera erraz aurkituko baitu.

Honela gertatzen ez bada, fruta heldu bat jarri daiteke belarri ondoan, bere usain gozoak intsektua erakarri egingo du belarriko irteerantz erakarritz.

**AZKARATE  
ARROZTEGIA**

Tailerra: Mahasterreka, 18  
BERGARA  
943 76 47 19

ARETXABALETA  
943 77 01 24

**T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A**

**ELIKADURA  
BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 943 79 44 28  
ARETXABALETA

**AZTER-ALDE  
JATETXEA**

SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 943 79 24 58 ARETXABALETA

**LEIBAR**

arrandegia

Mitarte Kalea, 1  
Tfnoa: 943 77 13 79  
ARETXABALETA





## Leintz Bailarako 1962.eko txirrindulari proba

dara partean, eguraldi onaren laguntzaz, hainbat kirol/kirolari proba eta probalari azaltzen dira. Hor daukagu egunero telebistan Frantziako Tour izeneko txirrindulari proba; bertako gorabeherak ere denok ahotan darabilkigu: Olano oso ondo kokatuta ei dagoela sailkapenean, egunero norbaitzuk jausten direla, dopinga...

Frantziako Tour txirrindulari proba munduan dagoen ezagun eta zaharrenetariko bat bada ere, ezin dugu ahaztu Aretxabaletan, Andramaixetan egiten den karrerista proba, Gipuzkoan eta Euskal Herrian ezagutzen den "Vuelta al Valle de Leniz" garai batean bataiatutakoak aurten 62. edizioa ezagutuko duela. Ez dira gutxi!

Argazkikoa 1962. urtean eginiko proba da, Leintz Bailarako XXIV.a hain zuzen ere. Irabazlea Pinturas EGA taldeko **P. Guenetxea** izan zen, **Askasibar** eta **Goikoetxearen** aurretik. Etapan zehar, pintxazo baten ondorioz atzealdean ibili ondoren, lehen postuan agertu zen Aretxabaletako helmugan, herriko plaza aurrean; argazkiaren ezker aldean Etxabe harategia eta D. Uribesaldok zuen estankoa (goikaldean Espainiako banderaz hornitutako errotulua nabari da). Atzekaldean, mojen komentuko burdinezko atea eta Tablas etxea (gaurko CLP).

Berarekin batera eta bizikleta eutsiaz **Anton Mtez. de Agirre** (sasoian UDAko presidentea) eta **Pedrin Antxia** (presidente-ordea). Lorak ematen **Feli Uribetxebarria**, beste hiru emakume gazte: **Pili Alberdi**, **Paula Zaloña** eta **Mari Garai**. Jende artean: **Romualdo Uribetxebarria**, **Felix Mari Antxia**, **Alberto Oianguren** eta beste asko.

Baietz/ezetz asmatu goardia zibila nor den.

Argazkia: Justino Castro

Informazio eta testua: Aitor Antxia Leturia



Lurrindegia  
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

GARBITU S.  
COOP.  
**Garbiketa  
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

Mobiliario  
ARENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**BENGOA  
URDAITEGIA**

*Bertako okelak eta  
mortzilak*

Durana, 9  
Tfnoa: 943 79 19 79



## LANA

- ◆ Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko (kotxea beharrezkoa da). Tfnoa: 943 71 50 92.
- ◆ Pertsona bat behar da abuztuan elkarte bat garbitzeko. Tfnoa: 943 79 62 63.
- ◆ **Alemana** emango duen irakasle bat behar da. Interesatuok deitu 943 79 00 69 telefonora.
- ◆ **Loramendi Euskara Elkartek dinamizatzaile bat** behar du. Interesatuok deitu 943 77 09 70 telefonora edo eta bidali curriculum-a Aretxabaletako udaletxe zaharrera, Durana, 11 20.550 Aretxabaleta.
- ◆ **Zerbitzari** euskalduna behar da. Tfnoa: 945 44 50 86
- ◆ **Neska prest**, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 943 77 17 42.



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.**



## DENETIK

- ◆ LOGSE 2. mailako neska bati gaztelerazko klaseak emateko pertsona bat behar da. Tfnoa: 943 79 71 32.
- ◆ Ingeleseko eta euskarazko klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. 943 79 06 86.
- ◆ Miele lehorgailu bat salgai. Egoera oso onean. Interesatuok deitu 943 79 85 83 telefono zenbakira.
- ◆ Gela bat hartu nahi dut alokairuan Aretxabaletan. Tfnoa: 670 05 47 63.
- ◆ Udan klase partikularrak ematen dira 2. ESSOrarte. 943 79 25 62 Arantzazugatik galdetu.
- ◆ Volkswagen Comby furgoneta salgai. Guztiz ekipatuta. Tfnoa: 943 714915, 21:00etatik aurrera.
- ◆ San Migel merenderoa alokatzen da Apotzagan. Tfnoa: 943 714996
- ◆ Datorren ikasturtean arratsaldez alemaneko klaseak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 943 79-0069, 15:00etatik 18:00etara.
- ◆ Laredon pisu bat alokatzen da irailean. Tfnoa: 943 793147.

◆ Roller Aloha karabana salgai. Tfnoa: 943 770522, iluntzean deitu.

◆ Ezkarain apartamentua alokatzen da. Uztailea eta abuztu erdia. Tfnoa: 943 771270.



## ETXEBIZITZA

- ◆ Lokal komertziala salgai edo alokagai dago Aretxabaletan, toki zentriko eta eguzkitsuan. Orain artean ileapaindegi eta edertze areto moduan funtzionatu du. Tfnoa: 943 71 12 70.
- ◆ Baserri zahar bat erosiko nuke berrizteko asmoz Deba Bailaran. Tfnoa: 649 67 19 14.
- ◆ Etxe bat erosi nahi genuke Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 86 21
- ◆ 57 m<sup>2</sup>ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.
- ◆ Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 649 16 86 69.
- ◆ Etxea erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 796168.
- ◆ 60 m<sup>2</sup>ko lokala salgai Mitarte kalean. Tfnoa: 943 771270.

**Jose Mari bodegoia**

**Eguneko menua**

Nafarroa, 6  
☎ 943 79 20 45  
Aretxabaleta



**FELIX PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56



**MAPFRE**  
**Aseguroak**

Errekabarren, 3  
Tfnoa: 943 77 11 76

**GEMES**

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18  
Aretxabaleta

# Eguzki gorritan



M. J. Arretxe

Heldu da bikini janzteko garaia. Eguzki gorritan biluzteko momentua. Eguzkirako betaurrekoak, eguzkirkoko krema ... ni bezalako batek dana beharko du izpi sarkor horietatik babesteko. Loradun bikiniari urte sa-soiko lehenengo astinduak eman dizkiot eta azalak, jada kolore sanoa hartu du. Heldu zaigu "the summer of 99" eta honekin batera lehenengo "kutis" kiskalduak. Gauza ederra da, hondartzan lasa-lasai inongo ardurarik gabe egotea. Baina ez pentsa herriko txutxumutxuk alde batera utzi ditudanik. Kontu dexente baitauzkat zuentzako.

Ekainaren 25etik 26rako gauean, **Santa Agedako mutilek** jasotako tantaia zerraz moztu zuten ezezagun batzuek. San Pedro egunerarte zutik beharko zuten tantaia gau "magiko" hartan ezusteko txarra hartu zuten. Tantaia, soldaduzkara joateko desiatzen dagoen norbaitek moztuko zuen. Nork bestela?

Atxabaltako beste gazte bat ETBko saio batean ari-tuko dela ere entzun dut, **Iban Gonzalez** hain zuzen. "Azken uda pasa" izeneko programako musika saioan izango dugu bera. Musika kontuetan badakit nahiko aditua dela Iban, beraz ez da galduko ibilbide berri honetan.


Ibilbide berria **Anjel Bergaretxerena**, izan ere hemendik eta lau urte bitartera bera izango baitugu herriko alkate. Honela ba, alkate berria eta haize berriak datozkigu hurrengo legealdirako.

**Igor Arenazak** ere haize berriak bilatu ditu Logroño aldean. Izan ere, Eibarrekin buruturiko denboraldi amaiera izugarriak, bigarren mailako talde handi batera eraman baitu. Eibarren bezain denboraldi bukaera ona egin ezkerero, aurki ikusiko dugu lehengo mailan. Nork daki.

Uda giroa jai giroa. Aretxabaleta ez da gutxiago izango. Honela, joan den zapatuan herriko Gaztetxean izan zuten jai. Bazkaria, jolasak Abalomen kontzertua eta gauean berriz Akulu taldearen emanaldia. Festa giroa nagusi bertara hurbildu zirenentzako. Festa giroa nagusi gaztetxeke etapa berri baten hasiera izan zen horretan.

Ez dakit gaurkoan zuen jakinminak asetu ditudan. Baina eguzkiak gero eta gogorrago astintzen duenez, txutxumutxuak hurrengorako utziko ditut. Karramarroa bezain gorri jarri ezkerero, akaso hurrengoan ni neu izango naiz denon ahotan. Badaezpada krema pixka bat...

## Liburutegiko txokoa



### Espazioko istorio sekretuak

Testua, Joan Manuel Gisbert  
Marrazkiak, Toni Garcés  
Itzulpena, Federico Higón García  
Edebé-giltza, 1998 (Tucán, 22)  
Adina, 10 urtetik aurrera

Urtero hiru astronauta biltzen dira Suizako ostatu batean majo afaldu eta euren istorioak elkarri kontatzeko. Bata errusiarra da, Estatu Batuetakoa bigarrena eta txinatarra bestea. Beren afari horietan ez dute inork entzutea nahi, Thomas mutikoak, ordea, beren zerbitzari izango denak, istorio horiek entzuteko aukera paregabea izango du oraingoan. Astronauta bakoitzak bere bidaietan gertaturiko istorio bitxi bat kontatuko du.

Zientzi fikzioa eta misterioaren artean daude istorio berezi hauek eta ziur nago 10 urtetik gorako irakurleek oso gustora hartuko dutela.

Joseba Lopez de Armentia

UZTAILA

9

egukotxa

**UDAKO BATZAR OROKORRA**

Arrasaldeko 8etan izango da udaletxeko pleno aretoan. Honako gaiak landuko dira: aurreko aktaren onarpena, 99-99 denboraldiko kirol eta ekonomi balantzea, 1999-2000 denboraldiko batzorde berriaren eraketa eta azalpen orokorra eta eskari eta galderak.

10

zapatua

**PILOTA PARTIDUA ARETXABALETA-BERGARA**

Herri arteko torneoan hirugarren eta laugarren postua jokatu da Oñatiko kiroletxean, arrasaldeko 6etan. Bergara eta Aretxabaleta izango dira aurrez-aurre.

**SAN KRISTOBALAK LARRINON**

Uztailaren 10ean San Kristobalak direla eta arrasaldeko 7etan meza izango da Larrinon. Ondoren elkartean afaria egingo da.



**943 71 20 02**

15

eguna

**AIRE ZABALEKO ZINEA**

Arrasateko Monterron parkean, El Milagro de P. Pinto filmea. Zuzendaria Santiago Segura da. Ordua: 22:30, prezioa 450 pezeta.

16, 17, 18

**SAN LORENTZO JAIAK**

Ikus egitarau berezia 21. orrialdean.



22

eguna

**AIRE ZABALEKO ZINEA**

Arrasateko Monterron parkean. Muertos de Risa, Alex de la Iglesiaren filmea. Ordua 22:30, prezioa 450 pezeta.

23

egukotxa

**KONTZERTUA**

Aritzeta Abesbatzak kontzertua eskainiko du Bergarako Udal Pilotalekuan. Ordua: 22:30

**ARGAZKI LEHIAKETA**

“Gazteak eta 2000. urtea “X. argazki lehiaketa antolatu du Arrasateko Gazteria eta Emakume Sailak, ASA taldearekin batera. Izenak aurkezteko epea urriaren 8an amaituko da. Sariak 75.000 eta 50.000 pta.koak izango dira. Berri gehiago Udaleko Gazte Zerbitzuan (943 77 00 65).

**ITURGINTZA**



**URA, GASA ETA KALEFAZIOA**

Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87

**CONSUM EROSKI**

*Orain arrandegi eta okindegiaz, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
ARETXABALETA

**PORTASOLGO JAIK**

Uztailaren 16an ekingo diote Portasolgo jaiek. Txupinazoa arratsaldeko 18:00etan izango da eta giroa berotzen hasteko trikitalari, erraldoi eta buruhandiekin kalejira egingo da. Gauean, hainbat DJk musika mota ezberdinen erakustaldia eskainiko dute. Zapatuan, dianaren ostean, sokamuturra izango da eguerdiko 12:00etan, eta arratsaldeko 19:00etan. Arratsalde partean, mus txapelketa, haurrentzako jolasak eta txoko-

latada izango dira eta iluntze aldera, Iruna Band orkestrak saioa eskainiko du afal ordura arte. Afal ostean, bere saioari berriz ekin eta ordu txikiak arte arituko da jo ta sua. Igandean, meza egongo da San Lorentzoren ohorez, haurrentzako margo lehiaketa, xake txapelketa eta bonba japoniarak. Eta azkenik, San Lorentzori agur esateko, trikitalariek jaietako azken notak emango dituzte datorren urtera bitartean.



**Argazki artxiboa ezagutzen**



Herrian lan izugarria egiten ari den argazki artxiboa gertuagotik ezagutzeko aukera izango dugu bihar Atxabalta telebistan. Gure iragana eta orainaldiko argazkiak gorde, artxibatu eta guztion eskura jartzeko lanean ari dira argazki artxiboko ki-deak. Beren goitza kultur etxean

dute eta bertan Mac ordenagailu eta scanner baten bidez argazkiak digitalizatu eta CDrom-etan gordetzen dituzte.

Hori guztia Alberto Etxebarriaren ahotik entzuteko aukera izango da biharko emisioan. Horrez guztiaz gain, hainbat argazki zahar eta kurioso ere erakutsiko dira, baita orain artean aurkitu den argazkirik

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Aretxabaleta**

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkarte 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 79 64 61
- Kultur-Etxea 943 79 01 05
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Murruxio M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

**Udaltzaingoa**

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

**Larrialdiak**

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea (Arrasate) 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

**Garraioak**

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 20 20
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15



**Kazetaritzako azken urtean ikasten dihardu Amagoia Lasagabasterrek, Atxabalta telebistako aurkezleak. Ikasi eta lan, biak batera, dena dela, Amagoiak gurago du lan egitea. Lanak esperientzia haundia emateaz gain dirutxo bat poltsikoratzeko aukera ematen baitu.**

**• Zelan dihoaz ikasketak?**

Trailerako urtero moduan batzuk utzi ditut, baina bestela ondo esan beharko.

**• Ikasle la langile bizitza, zein da hobia?**

Langilearena, ikasteaz gain kobratu ere egiten da eta.

**• Kazetaritzan zein da gehien**

## “Herritarrek ateak zabalik dituzte telebistan”

**gustatzen zaizun arloa?**

Aurten komunikazio-kabineteei buruzko irakasgai bat eduki dugu eta interesgarri izango litzateke arlo honetan lan egitea.

**• Zer behar du kazetari on batek?**

Karreraren ikasitakoa praktikara eramateko lan on bat.

**• Samurra da teoria praktikara eramatea?**

Gutziz desberdina da, teoriarik ezterako balio ez duten gauzak ikasi ditut, kazetaritzan egunegun egiten diren praktikek balio dute.

**• Eta telebistan zer da zailena?**

Nire kasuan herri txiki honetan berri interesgarriak aurkitzea.

**• Kamara aurrean nola moldatzen zara?**

Ikasten ari naiz oraindik, gainera hori beste batzuk esan beharko lukete.

**• Nondik ateratzen dituzue notiziak?**

Ahal den lekutik, udaletxetik, kiroltxetik, egunkarietatik, kaletik...

**• Herritarrek telebistara ekartzea zaila da?**

Oso zaila, ia inork ez du telebistan agertu nahi, eta jakina, guk ezin ditugu behartu.

**• Zer esango zenieke herritarrei?**

Interesgarria den zeozer kontatzeko

badute, ateak zabalik dituztela.

**• Bitxikeriarik telebistan?**

Behin UDAko entrenatzaileari deitu nion elkarrizketa bat egiteko, eta orubete beranduago Arrasate telebistan azaldu zen, Amagoiarekin elkarrizketa bat zuela esanez.

**• Korueta ala kalea?**

Urkulu.

**• Zer du ona baserriak? Eta txarra?**

Ona parajea, lasaitasuna, goizean leihoa zabaldu eta Kurtzebarri ikustea. Txarra kotxerik ez badaukazu izorratuta zaudela.

**• Zer da goizean jaiki eta egiten duzun lehen gauza?**

Ea zein eguraldi dagoen begiratu.

**• Zer egingo duzu oporretan?**

Ahalik eta lan gutxien, hori seguru.

**• Bidaia bat nora?**

New York-era.

**• Zenbat ordu egiten duzu lan?**

Neguan zortzi bederatzirdu gutxienez, eta udan askoz gehiago, batzuetan hamabi.

**• Aurrera begirako asmoak?**

Bizi, ahal den eta ondoen gainera.

**• Juerga non eta noiz?**

Gogoa dagoenean, edonon.

**• Mutil batengan zertan fijatzen zara lehendabizi?**

Aurpegiari, begietan, bere irriparrean...

## KOMIKIA

### BALITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

# Zure oporretarako hamaika aukera eskaintzen dizugu

Zure oporretarako behar bezala gozatu eta zure VISA txartelen aukera guztiak baliatu dituzun, ondoko argibideak irakurtzea iradokitzen dizugu:

## • VISA SERVIRED GAZTEA

• VISA AFFINITY  
(Ikastolak-Partaide)

• VISA URREA

• VISA AFFINITY  
(Cáritas Euskadi)

• VISA AFFINITY  
(Medicus Mundi)

• VISA SERVIRED

• VISA CLASICA



- ▶ Gogoan izan zure VISA txartelekin saltoki eta kutzazain ugari osatutako sarea daukagula eskuragarri, munitu osoan, zeure erostekak ordaintzeko eta/edo dirua ateratzeko.
- ▶ Kreditu-txartelen bat baldin baduzu, oporretara joan aurretik, kontsultatu zure sukurtsalean txartelak duen kreditu-muga.
- ▶ Servired txartela baldin baduzu, zeure kontuko saldoaren kontra eros dezakezu eta erabil ditzakezu kutzazainak.
- ▶ Txartela lapurtzen badizute edo galtzen bazaizu, salatu lehenbailehen Ekan edo VISA Españaren telefono hone-tan: 91 519 21 00.
- ▶ Erabil ezazu Telebanka txartela saldoak kontsultatzeko, intsultatzeko... Ez baldin baduzu, eskatu zure sukurtsalean edo 901 333 444 telefonoan.



**CAJA LABORAL**  
EUSKADI KO KUTXA

Erantzun  
zuzena

**mondeo seriejazz.**  
gidatzeko atseginaren interpretazio paregabeara.

zuk aukeratu, **mondeo jazz** 4 edo 5 aterekin edo wagon delakoa, gasolina 16v edo turbodiesela intercooler eta guzti.

lagunduriko direkzioa, beira jasogailu elektrikoak aurrean, itxigailu bateratua, gidariarentzako aire poltsa, geidigailu elektronikoa, pintura metalizatua, 5000 con irrattikaseta agintegailua bolantean.

**2.415.000 pta**

aukeratu, probatu eta erosi, aukera hauetan:


**jazz seriea 1.8 16v/1.8 td**  
**2.415.000 pta**

**ghia 1.8 td 90cv**  
**2.780.000 pta**

**ghia 2.0 16v**  
**2.880.000 pta**

**executive/rs 24v 170cv**  
**3.625.000 pta**

**ST200 24v 205cv**  
**4.200.000 pta**



**fordmondeo**

**MUGARRI AUTOMOBILAK**  
Araba etorbidea, z/g. ARRASATE  
Tel.: 943 79 07 44

